



## HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2014/07/16

BILERA ZENBAKIA: 7

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: 17 parte hartzaile (7 gizonezko eta 10 emakume).

### EGINDAKO LANAREN LABURPENA

## LANDUTAKO GAI ORDENA

### 1. Abuztuko Jaiak

Egitaraua aurreko bileran aurkeztu zen eta lotu beharreko gauza hauek erabaki ziren:

Hamaiketakorako Kamioneta elektrikoa behar zela gora igotzeko.

Toka txapelketako sariak: Gazta, Ardoa eta rekaudazioa.

### 2. Iraileko Jaiak

Egitaraua errepasatu ondoren, gauza gehienak erabakita badaude ere, ondorengo erabaki hauek hartzen dira.

Irailak 19, Ostirala:

Zinta karrera egiteko tresna Frontoiko txokoan utzi behar duela aguzilak.

20:30etan txupinazo garaian Ijito ??? jetsiera bat egitea, Gaztelekukoek antolatuko dutelarik.

Futbol txapelketarako arbitroak eta sariak (sorpresa) izan go direla, Sortuk antolaturik.

Imuntzo eta Belokiri deitu egin behar zaiela afaltzeko zenbat izango diren jakiteko.

Irailak 20 eta 21eko Goiz eresia egiteko abisua pasa txistulariei.

Paella lehiaketa egiteko aulkiak eta mahaiak ekarri behar dira Zaldibitik eta hori aguazilari esan behar zaio.



Bokadilloak egiteko, nahiz eta, beste aukera batzuk aztertu diren, garesti irteten dela eta Ongizate taldea arduratuko da. Prezioak: (helduek 2,50€ eta nerabeek eta haurrak 1,50€).

Lotzeko gelditzen dira:

Ormaiztegitik karpa ekarri (libre badago) edo Aulkiri enkargatu.

Atila-ren kontzerturako soinu ekipoa kontratatzea.

Igandeko bazkarirako Kuxkuxtuk eta Beñatek ezin dutela etorri eta beste txaranga??? bat ekartzeko ahalegina egin behar da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
2014-2015 ikasturterako aurrekontuak	Iraila	Herriko taldeek

### HURRENGO BILERA

**Hurrengo bilera, Irailaren 10-ean egingo dugu, asteazkena, arratsaldeko 7tan Udaletxean.**

Gai ordena:

1. Jaietako antolakuntzari azken errepassoa.
2. Abuztuko jaien balorazioa.
3. Aurrekontuen lanketa